



## TXANTXOEN ETA TALAIEN ZITA BEREZIA

Haize zakarrak ez zuen Inauterietako festa zapuztu Abaltzisketan eta Amezketan >7

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza

info

Astelehena  
2008-02-04

VIURTEA 1.354. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

# Tolosa kolorez mozorrotu da

**INAUTERIAK 2008** Atzokoan kaleak karrozen kolorez jantzi ziren, goiz guztian zehar eguraldia lagun izan zutela

**GAUR** Astelenita eguna da; aisialdi taldeek azken asteetan prestatu dituzten dantzak kalera aterako dituzte 4-5



Irudimenez beteriko mozorroak eta karrozak ikusi ziren atzo Tolosako kaleetan. I. TERRADILLOS

## K Komikia

## Martin Mantxo



## » GARRAIO PUBLIKOIA

## Gaur

## ■ Hiribusa.

- San Frantzisko- Geltoki- Berazu- bi- lurre- lurreamendi- Usabal- industrialdea- Amarotz- San Blas- Iparragirre- Zaballarreta- Kondeaneko aldapa- Klinika- Zumalakarregi- San Frantzisko: 07:30etik 22:00etara.

- Zubi Berria- Usabal- industrialdea- Amarotz (behean)- Kondeaneko aldapa- Zubi Berria: 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara.

## ■ Tolosaldea Bus. Gaueko zerbitzu berezia:

- Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre- Amarotz- Alegia- Ametzeta- Ikaztegieta 00:00etan, 02:00etan eta 03:30ean.

- Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre- Amarotz- Ibarra- Berrobi- Eldua- Elduain- Berastegi 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean.

## ■ TSST. ZERBITZU BEREZIA:

- Tolosa (Santa Klara)- Anoeta- Irura- Villabona- Zizurkil- Asteasu 23:30etik 04:30era 30 minutuero.

- Asteasu- Zizurkil- Villabona- Irura- Anoeta- Tolosa 23:00etatik 04:00etara 30 minutuero.

- Tolosa- Donostia zuzenekoak: 07:10, 08:20, 09:30, 13:55, 15:00, 19:10.

- Donostia- Tolosa zuzenekoak: 07:45, 09:00, 13:10, 14:30, 18:30, 19:50.

## GAUEKO ZERBITZUA:

- Tolosa- Irura- Villabona- Andoain- Lasarte: 00:00etatik 06:00etara orduero.

- Tolosa- Añorga- Rekalde- Donostia: 00:00etatik 07:00etara, orduero.

- Donostia- Lasarte- Andoain- Villabona- Irura- Tolosa: 21:15, 21:30, 21:45, 22:15, 22:45.

## ■ Trena.

- Eguneko ohiko ordutegiaren gain, errefortzu zerbitzua izango da: Donostia- Tolosa: 22:03, 22:41. Brinkola- Tolosa: 22:50.

- Gaueko zerbitzu berezia: Tolosa- Irun: 01:00, 03:00, 05:00, 05:55.

Tolosa- Donostia: 02:00, 03:50, 04:55.

Tolosa- Brinkola: 03:10, 05:20.

## » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

■ Leitza. Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

## @ Bideoak eta irudiak.

Aurtengo Inauterietako irudi guztiak bildu ditu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK bere webgunean eta egunegun dauden ekitaldi garrantzitsuenak bideoetan bildu ditugu. Sartu eta gozatu une onenekin. Bertan daudenentzat zein Tolosara etorri ezin eta kanpoan zaudetenentzat Inauterietan gozatzeko aukera ezin hobea eskaintzen du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Gizonezko bat hil da bere auto barruan Villabonako Otsabi auzoan

**Ezbeharrak** » Gorpua erabat kiskalita zegoen, autoak su hartu ondoren; Ertzaintzak ikerketa jarri du martxan

## ERREDAKZIOA

Atzo, 12:00ak aldera, Villabonako Otsabi auzoan su hartuta zegoen auto bat topatu zuten. Bere barnean gizonezko baten gorpua topatu zuten, erabat kiskalita.

Ertzaintzak informatu zuenez, Hernaniko Ertzaintzako agenteak bertaratu ziren. Abiatu duten ikerketaren ondorioz autoa hilik topatu duten gizonezkoarena da (28 urteko Pasaiako gizonezko bat).

## » EGITARAUA

## GAUR

■ 09:00. Txarangen irteera.

■ 10:30. Plaza Berrian sokamuturra.

■ 11:00. Karrozen eta konpartsen irteera.

■ 16:00. Kalejira Poca Tripa, Tolosano eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.

■ 16:30. Zezenak zezen-plazan; txaranga ariko dira plazan bertan ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.

■ 19:00. Dantzaldia Berdura Plazan Poca Tripa, Tolosano eta Arco Iris txarangekin.

■ 19:30. Zerkausian *Trikubxiki* diskojaia.

■ 21:30. Iturritxiki Plazatik zezen suzkoa irtingo da.

■ 23:30. Plaza Berrian Trikujai diskojaia.

■ 23:30. Incansables eta Bonberenea txaranga kalez kale ariko dira.

## BIHAR

■ 06:00. Udal Txistulari Bandak *Alborada* joko du Udaletxeko arkupeetan, Berdura Plazan eta Felipe Gorriti Plazan.

■ 08:00. Pattar zezena zezen-plazan. Ondoren kalejira.

■ 10:30. Plaza Berrian sokamuturra, San Esteban txaranga alaituta.

■ 11:00. Karrozen eta konpartsen irteera.

■ 15:45. Herriko txistulari bandak, betiko ibilbidea eginez, *Idiarena* pieza joko du.

■ 16:00. Kalejira Kabila, Veleta- Aiz Orratz eta Txapel Handi txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.

■ 16:30. Zezenak zezen-plazan; txaranga eta txistulariak ariko dira ikuskizun guztian zehar plaza alaitzen. Ondoren, Kalejira.

■ 19:00. Dantzaldia Berdura Plazan Kabila, Veleta- Aiz Orratz eta Txapel Handi txarangekin.



■ 23:30. Incansables Zaharrak txarangen irteera.  
■ 00:00. *Sardinaren hileta* konpartsen irteera Gure Txokoa elkar- tetik.



Herenegun gauean danborrada doinuak izan ziren nagusi Tolosako kaleetan. Talde ugari hartu zuten parte. 23:30etik aurrera Mulambo eta kontzertuek ere bat egin zuten danbor soinuekin. ASIER IMAZ

# Nekaezinen danborrada gau guztian

**Inauteriak** » Helduen danborradarekin Inauteri mozorrotuei hasiera eman zitzaion herenegun, Zaldunita bezperan.

ASIER IMAZ

Arratsaldean haur danborrada ikusteko aukera izan baldin bazen herenegun, Zaldunita bezperan, iluntzean helduen txandairitsi zen eta kaleak kainoi, danbor-jotzaile, dantzari eta hauen traje elegantez bete ziren. Batzuk hankekin

markatzen baldin bazuten musikaren erritmoa, danborradan parte hartu zuten tolosarrek, eskuiekin gau guztian Inauteriak makilkadetan doinuarekin alaitu zituzten.

Urtero bezala, helduen danborradak eman zien hasiera Inauteri mozorrotuei. Asteartitararte jaiek

kolore eta umore berezia berreskuratu zuten, beraz, Zaldunita bezperan, danborradaren lehen kolpeekin batera.

## Triangulotik Alde Zaharrera

Galtzaundiren begiradapean elkartu ziren danbor guztiak 22:30ean, batzuk kainoi eta guzti agertu zirelarik, eta elkarrekin hasi ziren piezak joaz, beti ere, euren ordezkarien aginduetara. Ondoren Alde Zaharretik barrena Tolosako kaleetan zabaldu ziren eta

amaieran, danbor-jotzaileak Tolosako zirrikitu guztietan aurki zitezkeen.

## Mulambo eta kontzertuak

Danborradaren arrastoak gau guztian zehar aurki zitezkeen herenegun, baina danbor jotzailez gain, Mulambo perkusio taldekoen kalejira eta Plaza Berriko kontzertuetan ere jende ugari hartu zuen parte.

23:30ak inguruan eta danborradaren kolpeak urrunean itzaltzen

sentitzen zirenean, Triangulon Mulambo perkusio taldearen danbor soinuak jarri ziren martxan. Mulamboren atzetik jende andana ibili zen kalejiran, goputza mugitzeko arazo handirik gabe, perkusioen taupadaz. Ordu berean, Plaza Berrian Angelays, Evil Code eta Homo Demens taldeen kontzertuak hasteko prest aurkitzen ziren.

Musika doinuekin amaitzeko eta betiko txaranga gustoko zutenek, *Iraunkorak* eta *Oriako* txarangez gozatu zuten.



# IRUDIMENAREN MAGIA



**Karrozak eta konpartsak** Kolorea, musika, dantza... guztiak uzartu ziren atzo, Zaldunita Egunean, mozorreen eta karrozen egunean.

**N. LATABURU - I. TERRADILLOS**

Irtisi da aurten Zaldunita eguna azkenean. Hainbeste lan egin ondoren, gure mozorreak, karrozak, konpartsak eta dantzak jendarean erakusteko unea iritsi zen atzo. Goizko Diarak eman zuten kalera iriteko unea zeneren abisua. Une horretatik aurrera, bezperan prestatutako mozorreak, karroak, eta jendea kalera ateratzen hasi zen pikkanaka. Eta pikkanaka baita ere giroa alaituz joan zen. Mozorreen soinean erantarak leza galduarazten duenez jendea ohikoa baino umoretsuago egon ohi da, eta egun da musika pikka bot nahiko itaten dela gero bertatik. Dena den, musika pikka bat baino askoz gehiago egoten da Zaldunitan Tolosalde kaleetan, erakusle eta edo azoka handi baten bhurtzen da, eta hainbeste dago ikusteko non begiek ez dute denbora nahikoa itaten gurtar edo kigortzeko. Karroza edo konpartsa bakoitzak eskaintzen du ikusizuna, eta hau ederki lanburuko dantza saioa

izan daiteke, edota umorezko emanaldi bat herrikoetazterriko gairen bat aitzakiztat hartuta. Eta hainek badira ere pisi handiena hartzen dutenak, gero banakako mozorreak daude, klasikoetatik irudimena landuta orijinaltasuna bilatu nahit duenak. Berez, osagai hainek guztiekin, hitz baten definienezake atzo ikusitakoak, Inauteriak.

**Erritmoa eta mozorro apartak** Triangulo plazan jarri eta zegoen begiak edo kiki ikusialdiz ziren atzokoan ikusizun guztiak. Handik gertu, esaterako, San Frantzisko elizan, Kristo gurutzatua erostenak baxo, eta gural bako errege-erreginak ere bazebiltzan. Hain ohikoak diren piratet ere ezin izan hain egun, eta mozorreak, ile-apintzaileak, arabiar dantza edota Benidomera doazen jubitak. Euskal Herriko sekularren partidu ere ilangiz izan zen, eta kirolarekin jarraituz, estropadek ere bere lekua izan zuten atzokoan Tolosan.



Errege-erreginak herriararak agurtzen aritu ziren. Dala-gizonak ere ikusizuna eskaini zuten Tolosalde kaleetan... 1

Golan, piratet jantzia, helduak nahiz gazteboak. Behem mozorreak... 1



Ikapindegi moderno jarri zuten San Frantziskon. Txiliteroak eta Benidomera doazen jubitak ere handik zebiltzan, eta baita, Tolosalde arautariak ere... 1 TERRADILLOS



# Nola ez gara ba jeikiko tolosarrak?

**Inauteriak**» Jende ugari ibili zen atzo Dianan, txarangaren atzetik kalejiran; gehienek soinean pijama eta etxeke zapatilak zituzten.

## ERREDAKZIOA

Norbait falta bazen Tolosan, Inauteriak direla ohartzeko, ziurrenik atzo goizean konturatuko zen. Izan ere, goizeko zortzietan, Txupinazoa berriro bota behar zutela zirudien Plaza Zaharrean. Txaranga segituan hasi baitzen *Jeiki jeiki ohe hortatik gaur tolosarrak...* abestia jotzen.

Pijama soinean zutela, etxeke zapatilekin eta lotarako burukoarekin ateratzen ziren gehienak kalera. Begiak igurtziz, legamiak kentzen lana zuten askok eta askok. Beste batzuk berriz, festarako prest, moztarora jantzita zutela ateratzen ziren kalera. Dena den, urtero bezala, ez ziren falta izan bezperatik parrandan zebiltzan «gaupaseroak». Hauek, garagardoa eskuetan zutela, eta oraindik exera joateko gogo gutxirekin, txarangaren doinuei hala moduz jarraituz, kalejirara gehitu ziren.

Eguna ongi hasteko, Andaluziako kantina batere bazegoen ibilbidean, non jendeari azeitunak eta ardo txuria banatzen zieten Zalduña eguna ospatzeko.

## Tolosako Auroroak

Goizean goiz, akordeoak, biolin eta perkusio instrumentuek hartuta, Tolosako Auroroak kalera ateratzen ziren atzo kantatzera. Nafarroan jai erlijiosoetan (Inmakulada, Eguberriak, Erregeak, Aste Santua...) dagoen ohituretako bat da. Non 06:00ak aldera ateratzen diren Auroroak, musika eta kantarekin. Tolosan iaz ateratzen lehendabiziko aldiz, eta aurtten berriz. Parte-hartzaileak Ero etxe, Gure Txokoa, Txinparta... elkartetako kideak dira. Gainera, horietako batzuk, nafarrak.

Paco Gereñuik letra berezia egin zuen Tolosako Aurorentzat, eta honela dio abestiak: *Egun on Izaskungo izar ederra./ zuretzat lehen eskaintza/ ene ama./ Inauteriak direla eta/ ospatzeko presto ta alai gaude./ zure babesa eta laguntza eskatzeko/ elkartuta hemen./ Bide txarretik joango baginake/ zure eskua luza./ Hau da berri ona, jeiki tolosarra/ alaitu ta kanta hauxe da eguna!/ Trapu zaharrak jantzi/ ta orraztu gaberik/ oihu leihotikan, aupa Inauteriak.*



Urtean behin ikusteko aukera izaten da Abaltzisketako Txantxoan eta Amezketako Talaien dantza saioa. Atzo izan zen egun hori, herri hauetako Inauterietan.

# Txantxoan eta Talaien zita alaia

NEREA URBIZU

**H**aizea zakar zebilen, gogor astindu zituen bazter guztiak, eta hori, bai Amezketako talaiek eta bai Abaltzisketako txantxoek nabaritu zuten: beti bezain ondo aritu ziren herriko dantzak egiten, baina batek baino gehiagok txapela galdu zuten.

Goizean goizetik hasi ziren dantzan eta baserriz baserri eskean, puska biltzen. Herri gunetean jendea zain izan zuten bi herrietan, nola dantzatzeko zuten eta zein giro zeramaten ikusteko. Eta ikusleei ez die penatu. Balkoietan jendea ikustea ere erraza zen, musikak eta oihuek iragartzen baitzuten dantzariak zetozela.

## Txantxoak Abaltzisketan

Txantxoek urteroko alaitasuna mantendu zuten atzo ere. Meza Nagusia entzun zutenen aurrean fin aritu ziren abaltzisketar goiztiarrak. Zortzi mutil gazteren koardilak dantzatu zuen aldiro, trikitalariaren, poltseroaren eta mozo-erroaren laguntzaz. Poltseroak lurra garbitu zuen saio bakoitzaren aurretik erratzarekin, ondoren dantza bertan egiteko. Mozorroak oilaskoren bat lapurtu zuela ere entzun zen...

Aurten Iñaki Gorostidi animatu zen dantzatzeko, nahiera, kapritxoaren nonbait: tabernako arropa zeraman soinean baina dantzarako makilak hartu eta moldatu egin zen. Bestela, aurten abaltzisketarrek dantzari berri bat dute zortziko taldean eta ez zuen arazorik izan ondo aritzeko. Honek ere ez zuen galdu urteroko estatuko hamaiketako eta hori igerrri egin zen.

## Amezketan harrobi sendoa

Amezketan bi abantail gutxienez badituzte: alde batetik, herria handiagoa da; bestetik, neskek ere dantza egiten dute. Beraz, urte askorako Talai-Dantza gordeko dute, eta nola gainera. Aurten bi taldetan banatu dira ere, beti bezala, eta elkartu direnean, 18 lagun zeuden: beraz, 8 dantzari osatutako bi talde, gehi beste bikote bat. Dantzari berri batzuk izan dira aurtengoan.

Ugartetik herri gunera zetozen gazteak, trikitixa eta panderoaren laguntzaz. Puska biltzen aritu ziren eta bildu zuten, bai, dexente. Azkar-azkar dantzatzeko dute herri honetan eta erritmoa galdu gabe. Makilen hotsak erraz entzuten ziren herriko txoko askotan nahiz eta urrutiti xamar ibili.

## Gaur ere bai

Dena dela, ez dute lanarekin bukatu herri honetan, gaur berriz ere dantza saioak baitituzte eta kalejira ibiliko dira baserriz baserri, goizean hasita. Gauean, berriz, merezitako afaria egingo dute dantzari gazteek.



Ezker eskuin: Amezketan, puska biltzen; Abaltzisketan Gorostidi dantzan; Talaiak Txindoki mendiari begira. N.U.



Lau kamera ezberdin zeuden plaza inguruan, Abaltzisketako dantza grabatzeko asmotan. N.U.



18 Talai dantzari elkartu ziren atzo Amezketan. Haize bortitza zebilen eta faja ere galtzekotan izan ziren. N.U.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri  
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	EURIA
ARRATS.	HODEIAK
BEROENA	12°
HOTZENA	7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Goizean kaleetan usain gozoa

Garbitzaileen lana ezinbestekoa da urte osoan eta bereziki jaietan. Horregatik, gaurkoan, gure *Gora* haiei eskaini diegu. Goizean-goiz Dianara joan zirenek frogatuko zuten kaleetan zegoen usain goxo, xaboi gozo usaina. Gustura aritu ziren tolosar guztiak txaragaren atzetik saltoka usain gozo horrekin. Zaila izaten da kaleak garbi mantentzea baina garbitzaileek lortu dute... E. EZBEZA



## Urtero bezala, autoak kaleetan oker aparkatuta

Urteroko ogia da eta behin eta berriz errepikatzen dena sasoi honetan. Kaleetan kotxeak aparkatu ezinik eta... azkenean gaizki aparkatu. Urtero errepikatzen den zerbitzu izanik, nolaz diegu irtenbidea ematen? E. EZBEZA

## A Agurrak



**Urte askoan!**

**Uxue Munduate Zabala (Anoeta).** Gaur urtebete. Aitona eta amonaren partetik.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

## Otsailean zure kioskoan



**Egin zaitetz harpidedun:**

**hitza**ren harpidedunentzat eskaintza berezia: **18 €/urtean**

Deitu **943 30 35 54**